

Ehunberri: Ehundura soziala berregiteko guneak ikerketaren emaitzen laburpena

Ehunberri: Ehundura soziala berregiteko guneak ikertzeko eta parte hartzeko prozesu bat da, psikologian doktore eta ikerketa sozialeko Gune Irekiak elkarteko ikertzaile Xavi Mínguez Alcaidek koordinatutakoa, eta EHUko Gatazkak Ebazteko katedraren babesaren duena.

Ikerketa proiektuak “Gatazken eraldaketarako ikuspegi sistemikoa” jarraitu du, zeinak, besteak beste, bakearen eraikuntzan funtsezko aktore edo aldaketa-eragile direnen garrantzia adierazi duen. Ikuspegi honek inklusibitatea, konpromiso kritiko eta eraikitzailea, eta elkarrizketa azpimarratu ditu.

Ikerketak bakerako lau funtsezko aktore edo aldaketa-eragile hartu ditu ardatz: euskal erakunde eta mugimendu bakezaleak, EHUko irakasleak eta ikertzaileak, komunikabide desberdinetako kazetariak eta biktimen erreparazio osoan adituak diren pertsonak. Kazetarien, EHUko irakasleen eta ikertzaileen, eta biktimen erreparazio osoan adituak diren pertsonen kasuan, euren parte-hartzea modu pertsonalean egin dute, eta ez haien komunikabidearen edo erakundearen izenean.

Ehun pertsona baino gehiagok hartu du parte ikerketan, elkarrizketa, foku-talde eta elkarrizketarako espazioen bitartez. Zehazki, 44k erakunde eta mugimendu sozialekin egindako lan prozesuan, 28k UPV/EHUn egin den lanean, 21ek kazetariekin egindako ikerketan eta 8k biktimen erreparazio osoari buruzko ikerketan.

Ondoren azaltzen diren emaitzak azken bi urteetan egin den ikerketaren baitako topaketetan parte hartu duten lagunen lekukotzetatik eratorri dira.

1. EUSKADIN BAKEARI BEGIRAKO EKARPENAK

Ikerketak baieztatu du batez ere **erakundeek eta mugimendu sozialek** egin dizkiotela ekarpenak bakeari, adibidez:

- Indarkeriak eta konfrontazioak eragindako gizartearen haserrearen eta suminduraren katalizatzaile izan dira.
- Bakearen aldeko gizartearen kontzientziaren ausardiaren eta jarraitutasunaren eredu dira.
- Aginte publikoekiko eta alderdi politikoekiko presioa egiten dute, bakearen, eta haien diskurtsoen eta proposamenen eraginpeko biktimen errekonozimenduaren, goratzearen eta humanizazioaren politika publikoetan aurrera egiteko.
- Haien lana egiteko, gizarte bakezale eta demokratiko baten bizitza kolektiborako giza eskubideen nazioarteko estandarrak finkatu dituzte.
- Errealitatearen ikuspegi konplexuenak garatzeko bideak asmatu dituzte; onen eta gaiztoen, lagunen eta etsaien arteko dikotomia apurtzea ahalbidetu dute, eta euskal gizartearen koloreak eta ñabardurak nabarmendu dituzte.
- Indarkeriarik ezaren eta gizakiaren duintasunarekiko errespetu sakonaren printzipioak jaso dituzte.

- Pedagogia soziala egin dute, bakearen aldeko praktika eta hausnarketa sakonerako eta lanketa teorikorako espazioak bultzatzearen bidez. Gainera, haiek helarazteko bide ugari sortu dituzte.
- Euskal gizartean bakearen eta giza eskubideen kultura baten garapena erraztu dute.

Txostenak **UPV/EHU**ren honako ekarpenak nabarmendu ditu:

- UPV/EHUren eta gizartearen artean topagunea sortzea, EhuGune delakoan. Bertan, estrategikotzat eta/edo lehentasunezkoztat jotzen diren gai sozial, kultural, ekonomiko eta politikoak jorratu dira, eta gai horietako bat Bakea eta Elkarbizitzarena da. Gainera, 2014ko maiatzean, EhuGuneraren barruan Emagune jaio zen. ETAk jarduera armatua amaitu ostean euskal gizartean ireki den garai berrian, sentsibilitate ezberdineko emakumeak elkartzeko eta euren ekarpenak egiteko sortu zen hausnarketa-gune hori.
- Euskadin gatazkaren eta indarkeriaren dimentsio ezberdinak jasotzen dituzten ikerketak egitea. Horiek guztiek elkarrekin baliozko ezagutza-corpora osatzen dute.

Txostenak **komunikabideen** honako ekarpenak nabarmendu ditu:

- Hedabide batzuek ETAREN biktimak ikusarazten lagundu zuten 90eko hamarkadatik aurrera eta, horren bidez, bere indarkeriari zilegitasuna kentzen ekarpena egin zuten. Beste komunikabide batzuek talde parapolizialen edo muturreko eskuineko taldeen eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen biktimak ikusarazten lagundu zuten eta, hortaz, haien biolentziari zilegitasuna kentzen egin zuten ekarpena.

Bestalde, ETAREN behin betiko indarkeria-etetearen ondoren, honako hau azpimarratzen du ikerketak:

- Iritzi eta informazio-distentsio handiagoa dagoela.
- Hedabide ezberdinetan ahots desberdinak azaltzeko joera progresiboa nabarmendu dela.
- Euskadiko bakegintzari lotutako prozedurei eta praktikei buruzko informazioa.

Biktimen erreparazio osoaren esparruari dagokionez, honako hau azpimarratu daiteke:

- Justizia-eredu eta tresnen ezarpenean aurrerapenak egon direla, batez ere justizia konpontzailearen arloan, topaketa konpontzaileak edo Glen Cree bezalako biktima anitzen elkarriketak, adibidez.
- Biktimen erreparazioaren gaien estatu- eta autonomia-mailako garapen juridiko-arauemailea gertatu dela 2008 urtetik aurrera.

2. OSAGAI KRITIKOAK

Gatazkaren igoaldian hainbat aktoreren parte-hartzea adierazten duten horiek dira. Kasu honetan, ez da erakundeekin eta mugimendu sozialekin lotutako elementu kritikorik antzeman. Gainontzeko hiru arloetan honako hauek nabarmendu daitezke:

- UPV/EHU eztabairadako esparru bat izan da; bertan esparru sozio-politiko eta ideologiko desberdinen argumentuak garatzeari bidea eman zaio. Gatazkari eta indarkeriari buruzko ikuspegi desberdinak barne hartuko zituzten ikuspuntu zabal eta integratzaileak garatzen baino, norberaren jarrera indartzean jarri izan da fokua. EHUK ekarpen gutxi samar egin

dizkio Euskadin bakea eraikitzeari, batez ere ETak indarkeriari bukaera jartzeko egin zuen adierazpena baino lehen. Ondoren bai, egin ditu ekarpen batzuk Ehuguneren bidez.

- Komunikabideek egin duten kazetaritza bake-kazetaritzaren paradigmatik urrun egon da. Esparru sozio-politiko zehatzetan kokatuta egon dira. Lotura estua ikusten da komunikabideen lerro editorialen eta ideologiaren eta interes ekonomikoen eta politikoen artean. Komunikabideen objektibotasun-, neutrotasun- eta inpartzialtasun-faltaz hitz egiten da, baita manipulazio mediatikoaz ere, eta indarkeriaren legitimazio logikoaz eta horrek iritzi publikoak duen gizartearen errealitatearen irudikapenean izan duen eraginaz.
- Gabezia handiak daude biktimen erreparazio osoan, eta arrazoiak hainbat dira: oro har, biktimen gogobetetze maila ertain-baxua, baina, batez ere, 90eko hamarkadako azken urteak baino lehenagoko ETaren biktimena, talde parapolizialen eta muturreko eskuinaren (GAL, Euskal Espainiar Batailoia...) biktimena eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoena; legedi berankorra, eskasa eta biktimen arteko diskriminazio itxurarekin; justizia penalaren ereduaren muga handiak, beste justizia-eredu batzuen (adibidez, konpontzailea) aplikazio txikia; biktimen parte-hartze txikia haien erreparaziorako tresnak ezartzean; sufrimenduaren erabilera politiko-alderdikoia aktore politiko desberdinen aldetik.

3. PROPOSAMENAK

Esparru sozial desberdinetatik, bakea finkatzeari ekarpenak egin diezazkioketen proposamenak dira. Horren adibide dira hauek:

- Euskadin, **erakunde bakezaleek** eta giza eskubideen aldekoek sare soziala berreraikitze, biktimen oroimenerako eta erreparaziorako lanerako tresnak eta hausnarketak ekar ditzakete, haiek udal-esparruan egiten dute lan pedagogikotik edo esku-hartze sozialetik.
- UPV/EHUtik Euskadin bakea finkatzeko ekarpenak egin daitezke, bere gobernu-organoen apustu argi batetik, gatazkaren, indarkeriaren eta bakearen errealitatea hobeto ulertzeari lagunduko dion ezagutza ez teleologikoak eraikiz, irakasleen eguneroko praktikatik edo bakea eraikitzea ardatz duen prestakuntza-eskaintza batetik; ohiko bide akademikoetatik haratago doan ezagutzaren transferentziatik, ezagutzara iristea erraztuz gizarte osoari; edo gizarte-mailako parte-hartze espazioak antolatuz, edo unibertsitate barrukoak.
- Komunikabideek bakea finkatzeari lagundu diezaiokete indarkeriaren deslegitimazio-lanarekin jarraituz; informazioa zintzotasunetik, apaltasunetik eta independentziatik landuz; ahots guztiei leku emanez, errealitatearen ikuspegi konplexuago bat helarazteko; bakean edo bizikidetzan izandako aurrerapenen berri emanez; edo biktimen auzia inor baztertu gabe landuz.
- Biktimei dagokienez, bakea eraikitzen lagun daiteke jasandako kaltearen onarpen esplizitu eta zintzo baten bidez, eta gertatutakoa argituz, egia-maila onargarriak lortzeko, eta biktimen eta gizarte osoaren eskubidea gogobetetzeko. Ahalduntzean eta ez hainbeste asistentzialismoan oinarritzen diren biktima-politikak ere aipatzen dira, edo justizia konpontzaileak eskaintzen duen potentzialtasuna, justizia penalaren mekanismoen osagarri, gehiago lantzeko aukera.